

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioko Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

**Ebazpena: R21/2016**

**Espedientea: 54/2015**

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 28a,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka aurkeztutako eskumen-gatazkari buruz. Gaia: 2006 eta 2007ko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ERAKUNDEARI formalizatutako akta bakarrak. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da 54/2015 zenbakiarekin, eta Gabriel Casado Ollero jaunak txostengile gisa jardun du.

## **I.- AURREKARIAK**

**1.-** 2015eko abenduaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak, egun horretan bertan Ogasuneko zuzendari nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundia (aurrerantzean, BFA) ordezkatuz, hartutako erabakia egikaritzeko, eskumen-gatazka aurkeztu du Arbitraje Batzordearen aurrean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka agentzia horrek ERAKUNDEARI 2006 eta 2007ko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz formalizatutako akta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

bakarrei dagokienez. Akta horiek higiezinaren entregari dagozkie, eta BFAren iritziz ez daude behar bezala arazoituta lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoak aldatzeari dagokionez.

Azaltzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak aintzat hartuta, BFAk Arbitraje Batzordeari eskatu dio jarritako gatazka onar dezala eta baietsi dezala eta “deklara dezala 2006 eta 2007ko (...) ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak 1 ERAKUNDEARI formalizatutako akta bakarrak ez daudela behar bezala arazoituta, lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoak aldatzeari dagokionez”.

## 2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- a) 2015eko urriaren 7an, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek bilera bat egin zuten, 2006ko maiatzaren 18an lantaldeek hartutako erabakietan adostutakoa betetzeko. Bilera horretako aktan, akta bakarrei eta zerga-kontrolari dagokien zatian, jaso zen BFAk adierazi zuela ez zegoela ados Estatuak 2013ko ekitaldian, 2006. eta 2007. urteetako Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta ERAKUNDEARI formalizatutako akta bakarrak sartzearekin (2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 1/2007 Aktaren hemezortzigarren erabakian ezarritakoaren arabera). Horrenbestez, aipatutako akta kendu egin zen truketik, eta aparte izapidetu behar da.
- b) 2015eko urriaren 27an Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzan jasotako txostenean, Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapen Zuzendariordetzak eskatzen du Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak dagokion inhibizio-eskaera egin diezaiola ZAEARI, uste baitu, 2013ko ekitaldian, 2006ko eta 2007ko ekitaldietako Balio Erantsiaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

gaineko Zerga dela-eta ERAKUNDEARI formalizatutako akta bakarretan, ekitaldi horietan egindako higiezin-eragiketa jakin batzuen erregularizazioa aipatzen denean, “Bizkaiko Foru Aldundiari ez zaiola informazio nahikorik eman erregularizatutako higiezin-eragiketen kokapenak Ekonomia Itunean ezarritako irizpideak bete eta errespetatu dituen egiaztatu ahal izateko, kontuan izanik, batik bat, eragiketa horiei buruzko informazioan oinarrituta ezin dela egiaztatu higiezin horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan zeuden ala ez”.

Ikuskapen Zuzendariordetzak adierazi zuen “ziurrenik, eta justifikaziorik egin ez denez, Bizkaiko Foru Aldundian zerga-portzentajeak ez dira behar bezala zehaztu erakundeak Lurralde Historiko horretan egin behar dituen eragiketen bolumenari dagokionez”.

c) 2015eko azaroaren 3an, ZAEAREN zuzendari nagusiak BFAren Ogasuneko Zuzendari Nagusiak adostutako inhibizio-errekerimenduaren berri izan zuen, baina errekerimendu horrek erantzunik jaso ez duenez, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, ezetsizat hartu behar da isilbidez.

d) 2015eko abenduaren 29an, BFAren Ogasuneko Zuzendari Nagusiak, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordetzak proposatuta, ZAEAREN aurkako gatazka jartzea erabaki zuen, eta gatazka hori egun horretan bertan geratu zen erregistratuta Arbitraje Batzordean.

**3.- Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka azaltzeko egindako idazkian azaltzen duenaren arabera:**

a) ZAEAK ERAKUNDEARI formalizatutako aktan, 2006ko eta 2007ko ekitaldietako BEZagatik, aldatu egin ziren erakundeak deklaraturako zerga-portzentajeak, portzentaje horiek kalkulatzeko zenbait kontzeptu,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

besteak beste, “inbertsio-ondasunen entregak” kontuan hartu ez zirela argudiatuz.

- b) ZAEAk 2015eko uztailaren 15ean igorritako aktaren eta txosten osagarriaren edukia aztertu ondoren, Bizkaiko Foru Ogasunak zerga-portzentajeen aldaketa eragin zuten eragiketei buruzko azalpen gehiago eskatu zuen; eta horretarako, 2015eko abuztuaren 18an eta 19an ZAEAk erakundeak aitortutako eragiketen bolumena aldarazi zuten inguruabarrak eta zenbatekoak jasotzen zituen bi dokumentu igorri zizkion.
- c) Dokumentu horiek aztertuta, eragiketen bolumenaren aldaketarik handiena inbertsio-ondasunen eskualdaketak eragin zuela ikusten da, eta BFAk adierazten du “ZAEAk higiezin eragiketa horiei buruzko xehetasunik zehaztu ez duen arren, suposatzekoa dela erakundeak 2007. urtean egindako lease back eragiketari buruz ari dela, alegia, Espainiako bulegoak hainbat inbertsio-funtsi saldu zitzaizkieneko eragiketari buruz”. Aipatutako higiezin horien entregen kokapena aztertu ondoren, kokapen hori 2015eko abuztuaren 18ko gutunari atxikitako eginbidean jasotzen da, Bizkaiko Foru Ogasunak adierazten du “deigarria dela, aipatutako zerrenda horren arabera, orokorregia den zerrenda horren arabera, eskualdatutako higiezin horietako bat bera ere ez kokatzea Euskadin. Badirudi denak lurralde erkidean kokatuta zeudela, eta baten bat Nafarroan, eragiketak nazioko bulego guztiak bildu zituenean”.
- d) ZAEAk egindako zerga-portzentajearen kalkuluak Ekonomia Itunaren manuak betetzen zituen ala ez ikusteko, BFAk eragiketa horietako higiezin xehetasunak eskatu zituen, zenbatekoak eta kokapen fisikoa barne.
- e) Argitzeko eskaera horren inguruko erantzunik jaso ezenez, akta hau truketik kanpo utzi zen Bizkaiko Foru Ogasunari eskatutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioko Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

zenbatekoen arrazoiak azaltzen zituen txosten bat aurkeztu arte, baina inguruabar hori ez zen gertatu, ezta Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak igorritako inhibizio-errekerimenduaren jakinarazpenari erantzuteko ere.

- f) Azken batean, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, “erreferentziazko zerga-ordaintzaileari dagokionez akta bakarren trukearen inguruan Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egindako diru-erreklamazioa ez dago justifikatuta, ez delako inolako azalpenik eman lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoen aldaketa egiteko erabili den moduari buruz”.

Eta amaitzeko, BFAk adierazi du “gure ordenamendu juridikoak eskatzen duela eskubide bat kontuan hartzea nahi duenak frogatu egin behar duela, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak inolako frogarik aurkeztu ez duenez, Bizkaiko Foru Aldundi honek uste du ez dela bidezkoa aipatutako eragiketa kopurua aldatzea aldaketak oinarritzat hartzen dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak justifikatu ez direlako”.

**4.-** 2016ko irailaren 30ean ZAEAk Euskadin duen ordezkartzako Erakundearen arteko Harremanetarako eskualdeko buruaren idatzi baten sarrera erregistratu zen, eta haren bidez Arbitraje Batzordeko zuzendariari jakinarazi zitzaion “Ekonomia Ituneko 28.Bat.A.3. artikulua ezarritako ahalmenaz baliatuz, Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) eta Estatuak bi administrazioei dagokien zerga-proporzioari buruzko akordio bat erdietsi dutela ERAKUNDEARI 2006ko eta 2007ko BEZagatik irekitako A01-78037736 aktaren auzian, eta hor sartzen dela, halaber, BFAk Estatuari egin beharreko ordainketa (konpentsazio bidez)”.

Horren ondorioz, ZAEAk desagertutzat ematen du BFA gatazka hau aurkeztera bultzatu zuen desadostasuna, eta eskatzen du, akta bakarrari buruzko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

desadostasunak ERAKUNDEAN eraginik ez duenez, Arbitraje Batzordeak prozedura artxibatu dezala auzigaia desagertzeagatik.

**5.-** 2016ko azaroaren 17ko idazkiaren bidez, Bizkaiko Foru Ogasuneko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak, BFA ordezkatzuz, Arbitraje Batzordeari aurreko azaroaren 15ean Ogasuneko zuzendari nagusiak erdietsitako akordioaren berri eman zion. Akordio horren bidez, bertan behera uzten da 2015eko abenduaren 29an ZAEAREN aurka aurkeztutako gatazka – agentzia horrek ERAKUNDEARI, higiezinaren eragiketei dagokienez, 2006ko eta 2007ko ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zergak direla-eta formalizatutako akta bakarrek eragin zuten gatazka hori–.

**6.-** 2016ko abenduaren 28ko Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzeko onartu du, eta aurrez aurre zeuden bi Administrazioek bat-batean lortutako akordioa dela medio, izapide gehiago egin beharrik izan gabe, bilkura honetan bertan ebatziko du gatazka hori.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**1.-** Gatazka Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu du, haren iritziz, ez baitago arrazoituta ZAEAK ERAKUNDEARI formalizatutako akta bakarrei dagokienez Estatuko Administrazioak Bizkaiko Ogasunari egindako erreklamazio ekonomikoa; izan ere, “ez da inolako azalpenik eman lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren ehunekoen aldaketa egiteko erabili den moduari buruz”.

**2.-** Arbitraje Batzorde honek deklaratu du (besteak beste, uztailaren 28ko R17/2006 eta azaroaren 4ko R20/2016 ebazpenetan) aurrez aurre dauden zerga-administrazioei soilik dagokiela gatazka hau; alegia, administrazio horiek

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

dute gatazka aurkezteko eskumena, asmo horretan atzera egiteko edo proposamena egin duen administrazioaren aurrean amore emateko aukera, eta azkenik, gatazka honi irtenbidea emateko erantzukizuna, Arbitraje Batzordeak ebatzi baino lehen.

Gatazka honetan, zentzu handiz, azken kasu hori bete da BFAk eta Estatuak erdietsi duten akordioaren bidez. Akordio horretan, ERAKUNDEARI 2006ko eta 2007ko BEZagatik formalizatutako A01-78037736 aktaren auzian bi administrazioei dagokien zerga-proporzioa eta Bizkaiko Foru Aldundiak konpentsazio bidez egin beharreko ordainketa adostu ziren.

**3.-** Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, osaerari, bilkurei, erabakiak hartzeari eta funtzionamenduari eta prozedurari buruzko araubideari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan; ulertuko da azken erreferentzia hori ere aplikatuko zaiela urriaren 1eko 39/2015 Lege berriaren (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) xedapenei, joan den urriaren 2tik aurrera indarrean dagoen xedapen indargabetzailearen 3. zenbakian (azken xedapenetatik zazpigarrena) esanbidez ezarritakoaren arabera". Hala eta guztiz ere, 30/1992 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorra nahiz 39/2015 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorra betez, "lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie lege hau aplikatuko, eta aurreko araudiari jarraituko diote"; horrenbestez, prozedura honi aplika dakioken araudia aipatutako lehenengo arauan aurreikusitakoa da.

**4.-** 39/2015 Legearen 84. artikuluaekin bat datorren 30/1992 Legearen 87. artikuluaaren arabera, besteak beste, honako hauek amaituko dute prozedura: eskaeraren edo uziaren ebazpenak eta atzera egiteak, eta "baita (...) bat-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
54/2015	R21/2016	28-12-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioko Estatu Agentzia	Eragiketa multzoen aldaketa, Zerga Administrazioaren jardunbide bidez

batean gertatutako kausak direla-eta jarraitzeko ezintasun materialak ere”, edozer kasutan, emandako ebazpena arrazoitu egin beharko da. “Prozeduraren xedearen bat-bateko desagerpena gertatzen den kasuetarako, [hori amaituko duen] ebazpena kasu bakoitzean ematen den baldintzaren aitortpenean datza, gertatutako jazoeren eta arau aplikagarrien adierazpenarekin” (30/1992 Legearen 42.1 artikulua eta 39/2015 Legearen 21.1 artikulua).

**5.-** Kasu honetan, gatazkaren xedeari buruz Estatuak eta BFAk erdietsitaz aitortu duten akordioaren eraginez, desagertu egiten da bi administrazioen artean sortutako desadostasuna, eta beraz, desagertu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiak hasitako prozeduraren xedea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKI DU**

**1.-** Jardunak amaitzea eta artxibatzea; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren artean adostutako hitzarmenak eztabaidaren bat-bateko desagerpena eragiten du eta, horrekin, gatazka honen xedearena.

**2-** Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.